



BILBOKO HAURRESKOLA LARREAGABURU: Izen-ematea

Bilboko LARREAGABURU HAURRESKOLAN, lehen Mina del Morro Haurreskola zenean, instalazioak berritu eta bi gela gehiago prestatu dira 21 plaza berrirekin.

Hori dela eta, plaza berrietarako izen-emate epea zabalduko da urtarrilaren 26etik 30era (biak barne), beheko taulan adierazitako egutegia betez.

Izen-ematea 2022 eta 2021ean jaiotako haurren guraso edo legezko tutoreei zuzenduta dago eta guztira 21 plaza eskainiko dira: 0 urteko 8 plaza eta 1 urteko 13 plaza.

Epe barruan aurkezten diren eskaerak plazak baino gehiago baldin badira, eskaerak barematu egingo dira Haurreskolak Partzuergoko onartze araudiko irizpideen arabera.

01/03-2022 Erabakia, 2022ko martxoaren 29koa, Haurreskolak Partzuergoko Zuzendaritza Batzordearena. Honen bidez, Haurreskolak Partzuergoko haurren onartze-arauak eta irizpideak onartzen dira 2022ko irailaren 1etik aurrera.

HAURRAK IZENA EMATEKO ETA ONARTZEKO EGUTEGIA:

- a) Eskariak aurrez-aurre entregatzea: urtarrilaren 26tik 30era
- b) Behin-behineko zerrendak argitaratzea: otsailaren 2an
- c) Erreklamazio eta subsanazio epea: otsailaren 3a
- e) Behin betiko zerrendak argitaratzea: otsailaren 7an
- f) Haurren hasiera-data haurreskolan: otsailaren 8a

Izen-emateak presentzialki egin ahalko dira soilik, honako helbidean eta ordutegian:

Bilboko Larreagaburu haurreskola
Sagarminaga 30
48004 Bilbo
Ordutegia: 09:30etatik 15:30etara

Edozein informazio gehigarritarako jarri harremanetan haurreskoarekin edota Haurreskolak Partzuergoko planifikazio sailarekin:
planifikazioa.bizkaia@haurreskolak.eus

Berria ikusi



Berriak-era itzuli